

Bertaratutako kideak:

Dña. Eneriz González Fernández

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

D. José Paulos Vázquez

Ikastetxeetako Administraziooko eta

Zerbitzuetako langileen ordezkaria

D. Pablo Arriazu Amat

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Dña Laura Sanzol Olleta.

Ikastetxe Pribatuetako Irakasleen
ordezkaria FSIE-SEPNA

D. Francisco Javier Martínez Domingo.

Ikasleen Gurasoen Elkarten Federazioen
ordezkaria. HERRIKOA

Dña. Maite Kötter.

Ikasleen Gurasoen Elkarten Federazioen
ordezkaria. BRITILA

Dña. Arantxa Ruiz Vidorreta

Ikastetxe Publikoetako Irakasleen
ordezkaria STEE-EILAS.

Dña. Isidra Roldan Arróniz.

Aitortutako ospea duen pertsonalitatea.

D. Igor Arruabarrena Rezola

Ikastetxe publikoetako zuzendarien
ordezkaria

D. Ignacio M^a Iraizoz Zubeldía

Nafarroako Ikastetxe pribatuetako entitate
titularren ordezkaria/ANEG-FERE.

Dña Sonia Rivas Borrell.

Iruñean, 2025eko abenduaren 17an,
17:00etan, Nafarroako Eskola Kontseiluaren
egoitzan bildu da, Alicia Ruiz Oria andrea
buru dela, alboan adierazitako bokalak eta
Sonia Soret Eguiluz andrea idazkari direla,
Nafarroako Eskola Kontseiluaren Osoko
Bilkura edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia,
honako gai-zerrenda honekin:

1. Aurreko bilkurako akta berrikustea eta,
hala badagokio, onartzea.

2. Lehendakariaren informazioa.

3. Kontuak onartzea.

4. Lan-batzordeetan eta atxikipenean
egindako aldaketak onartzea.

5. Galde-eskeak

Unibertsitateen ordezkarria. Nafarroako
Unibertsitatea

Doña Begoña Pérez Eransus

Unibertsitateen ordezkarria UPNA

D. Jabier Ruiz Mirazo

Ikasleen Gurasoen Elkartearen Federazioen
ordezkarria HERRIKOA

D. Jesús Basarte Galbete.

Empresari elkartearen ordezkarria

Dña Arlene Valero Carbonell

Sindikatuaren ordezkarria/UGT

D.ª Aitziber Garmendia Lizaso

Ikasleen Gurasoen Elkartearen Federazioen
ordezkarria SORTZEN

D. Josu Repáraz Leiza

Nafarroako ikastetxe pribatuaren entitate
titularren ordezkarria-Nafarroako Ikastolen
Elkartea

D.ª Mari Luz Sanz Escudero

Nafarroan desgaitasuna duten Pertsonen
ordezkarria/ CERMIN

Ezin etorria adierazi dutenak:

D. Gil Sevillano González

Hezkuntza Administrazioaren ordezkarria

D. Luis Calatayud Yuste.

Hezkuntza Administrazioaren ordezkarria

Dª Teresa María Arriaga Iraburu.

Ikastetxe pribatu itunduetako zuzendarien
ordezkarria

D. Eliseo Jiménez Carmona

Ikastetxe Pribatuetako Ikarasleen
ordezkaria FETE-UGT

D. Dario Frías Paredes

Ikastetxe Publikoetako Irakasleen
ordezkaria AFAPNA

D. Kevin Lucero Domingues.

Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria .

D. Eduardo Piquer Lapuerta.

Ikastetxe Publikoetako Irakasleen
ordezkaria ANPE

Ez dira bertaratu:

Sonia Garcia Cifuentes.

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

D^a. Ladis Satrústegui Alzugaray

Toki entitateen ordezkaria

D. Juan Mendizabal Olaizola

Nafarroako Ikastetxe pribatuetako entitate
titularren ordezkaria/ANEG-FERE

Dña. Eneka Maiz Ulaiar.

Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria

Doña María Teresa Módol Betriu

Ikasleen Gurasoen Elkarte. CONCAPA

D^a María Fernanda León Jiménez.

Berdintasunaren alde lan egiten duten
elkarteen ordezkaria.

D. Antonio Angel Moleón Segura

Toki entitateen ordezkaria ^a.

1. Aurreko bilkurako akta berrikustea eta, hala badagokio, onestea.

Nafarroako Eskola Kontseiluko lehendakariak hartu du hitza lehenik, eta Sonia Soret Eguiluz andrea aurkeztu du Nafarroako Eskola Kontseiluko idazkari berri gisa.

Lehendakariak gai-zerrendarekin jarraitu du, eta kideei eskatu die ea alegaziorik edo iruzkinik egin behar dioten aurreko bilkurako aktari, eta onartzeko eskatu du.

Akta onartu da bertaratutako kideen baiespenez.

2. Lehendakariaren informazioa.

1. **Lehendakariaren bertaratzeak eta bilerak.** Lehendakariak 2025eko urriaren 23tik abenduaren 12ra bitartean izan diren ekitaldi eta bileren azalpen laburra egin du.
2. **ISEN egitea.** Lehendakariak NHSTa egiteko aurkitzen ari diren zailtasunak azaldu ditu, datuen prospekzioa oso garestia eta neketsua baita. Jakinarazi da dagoeneko eginda dagoela % 50 eta % 60 artean, eta lan-batzordeak osatutakoan aurrera egin ahal izatea espero du.
3. **Ikasleak ordezkatzetik dituzten kideak aurkitzeko zailtasuna.** Lehendakariak gogorarazi du zaila dela unibertsitateaz kanpoko ikasleen ordezkariak izatea Eskola Kontseiluan, bertako araudiak aurreikusten duen bezala, Nafarroan ez baitago unibertsitateaz kanpoko ikasleen elkarerik eratuta. Ikasleak erakartzeko formulak bilatzearen komenigarritasuna planteatzen da, eta mahaikideen artean eztabaida bat hasten da ordezkariak horretan interesa susta dezaketen hainbat aukerari buruz; besteak beste, honako hauek: Nafarroako Gazteriaren Institutuari laguntza eskatzea, figura hori Bigarren Hezkuntzako institutuarekin sustatzea, ikasleei informazioa eta prestakuntza emateko jardunaldiren bat eskaintzea rol hori sustatzeko, txandaka joatea ahalbidetzea hitzarekin baina botorik gabe, edo Unibertsitatean onarpen ona izan duten formulak erabiltzea delegatuen txaten bidez. Eztabaida amaitzeko, ondorioztatu da, nolana ere, sektore horren ordezkariak, Eskola Kontseiluan hitza eta botoa duena, arauaren arabera baino ezin dela izan; izan ere, gaur egun, ikasleen elkartearen edo federazioen proposamenek izendatzen dira ikasleen ordezkariak.
4. **NUP jardunaldia.** Lehendakariak jakinarazi du martxoan ikasle migratzaileen hizkuntza garatzeko egingo diren jardunaldi batzuetan parte hartzeko asmoa dagoela, bai gizartean, bai familian.

5. Estatuko Hezkuntza Sistemaren egoerari buruzko 2025. txostena. Lehendakariak Estatuko Hezkuntza Sistemaren egoerari buruzko Txostenari aurkeztutako zuzenketak azaldu ditu, Nafarroako hezkuntza-sistemari eragiten dioten datuei dagokienez, zeinak eragina baitute ikastetxeetan fisioterapeuten esku-hartzeari buruzko datuetan, CREENAren nomenklaturan (gaur egun Nafarroako Hezkuntza Berdintasunerako Baliabideen Zentroa da) eta programen araberrako antolaketan, bai eta Hezkuntza Bereziko ikastetxeetan esku hartzen duten profesionalei buruzko aipamenak ere.

Nafarroako Eskola Kontseiluaren irizpenei egindako zuzenketa formatuari dagokionez, lehendakariak jakinarazi du batzorde iraunkorraren bileran egungo plantillarekin jarraitzea edo Estatuak esku artean duen plantillara egokitzea komeni zen ala ez planteatu zela. Eztabaida labur baten ondoren, hurrengo Osoko Bilkurarako plantilla berriaren proposamena egitea erabaki da.

6. 8/2025 eta 9/2025 irizpenak. Batzordeburuak jakinarazi du Batzorde Iraunkorrek abenduaren 10ean egindako aurreko bilkuran onartu egin zirela 8/2025 eta 9/2025 irizpenak, bi arau-proiektuak buruzkoak, Osoko Bilkuraren eskuordetza-erabakiaren bidez beren eginkizunak betetz, eta Osoko Bilkurak irakurri dituela.

7. Egoitzaren hurrengo lekualdaketa. Eskola Kontseiluaren egoitza laster Ezpeleta jauregiko hirugarren solairura aldatuko dela jakinarazi da.

8. UNA ikerketa-proiektuarekin lankidetzan aritzea. "Hiparentabilitateari" buruzko ikerketa batean Nafarroako Unibertsitatearekin elkarlanean aritzeko asmoaren berri eman da.

3. Aprobación de las cuentas.

Lehendakariak Nafarroako Eskola Kontseiluaren finantza-kontuen egoera azaldu du, 47.033,95 euroko azken gerakina eskaintzen baitute, eta onartzeko eskatu du.

Bertaratutako kideen baiespenez onartu da proposamena.

4. Lan- eta atxikipen-batzordeetan egindako aldaketak onartzea. Batzordeburuak jakinarazi du premiazkoa dela lan-batzordeak eratzea, dauden 5en ordez 4tan uzteko proposamenarekin, bertaratutakoen baiespenez onartu baita.

Bilkuraren deialdian aurreratu zen bezala, gaurko Osoko Bilkuran bokal bakoitzak zein batzordetan atxikia izan nahi duen jakinarazi behar du. Honako hauek dira:

- 1.- Irizpenak: Hezkuntza Sailak helarazten duen arau-proposamena berrikustea eta zuzenketak egitea, hala badagokio.
- 2.- NHSTaren memoria eta 2. eta 3. kapituluak: berrikuspena, analisia eta ondorioak eta horien txostena.
- 3.- NHSTaren 4., 5. eta 6. kapituluak: berrikuspena, analisia eta ondorioak eta horien txostena.
- 4.- Txostenak, azterlanak eta jardunaldiak: Nafarroako eskola-sistema hobetzeko ildo gisa jarduerak prestatu eta proposatzea. Kontseiluaren jardunaldiak antolatzea.

Batzordeburuak batzordekideen artean batzordeak hautatzeko txanda hasi du, eta akta honi erantsi zaion "2025-2026 Eskola Kontseiluko Batzordeak" eranskinean agertzen den bezala esleitu dira.

5. Eskaerak eta galderak

Osoko Bilkuran erabili ohi den bozketa-sistemari jarraipena ematea proposatu du lehendakariak, eta sistema horri eustea erabaki da, bertaratutakoen baiespenez.

Eta aztertzeke beste gairik ez dagoenez, batzordeburuak Osoko Bilkurara bertaratutako kideen parte-hartzea eskertu du, eta saioari amaiera eman dio 17:55ean, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.